

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 3660

*AGINDUA, 2022ko uztailaren 14koa, Hezkuntzako sailburuarena, Vitoria-Gasteizen (Araba) dagoen «Egibide» Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu Pribatuaren baimena aldatzeko dena.*

«Egibide» Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu Pribatuaren titularrak hasarazi duen espediente aztertu da, zeinean baimena eskatzen baitu Lanbide Heziketako espezializazio-ikastaro bat gehitzeko.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek ikusi dira: apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (apirilaren 9ko BOE), otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekreturen bidez aldatua (martxoaren 12ko BOE); 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (uztailaren 30eko BOE); 479/2020 Errege Dekretua, apirilaren 7koa, Informazioaren teknologien inguruneetan zibersegurtasuna espezializazio-ikastaroa ezartzen duena eta curriculumaren oinarritzko alderdiak finkatzen dituena (maiatzaren 13ko BOE), apirilaren 13ko 261/2021 Errege Dekretuaren bidez aldatua (maiatzaren 7ko BOE) eta gai horretan aplikatu beharreko gainerako legeak. Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Aldatu egiten da 2022-2023 ikasturterako jarraian zehazten den ikastetxearen baimena.

Kode zenbakia: 01001531 eta 010248.

Izen generikoa: Lanbide Heziketako Ikastetxe Pribatu Integratua.

Izen espezifikoa: «Egibide».

Titularra: Fundaciones Diocesanas – Jesus Obrero Fundazioa.

Helbidea: Frantzia 32 eta Nieves Cano 10.

Udalerrria: Vitoria-Gasteiz.

Lurralde historikoa: Araba.

Baimena:

– Lanbide heziketako goi-mailako espezializazio-ikastaro bat gehitzeko, «Informazioaren teknologien inguruneetan zibersegurtasuna».

Ikastetxearen osaera:

– Lanbide Heziketa:

• Lanbide-arloa: administrazioa eta kudeaketa.

- Administrazio-kudeaketa, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 4 ziklo.
- Administrazioa eta finantzak, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 5 ziklo.
- Zuzendaritzari laguntza ematea, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 3 ziklo.
- Lanbide-arloa: merkataritza eta marketina.
  - Merkataritza-zerbitzuak, oinarrizko heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Marketina eta publizitatea, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Garraioa eta logistika, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: eraikuntza eta obra zibila.
  - Eraikuntza-proiektuak, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: elektrizitatea eta elektronika.
  - Elektrizitatea eta elektronika, oinarrizko heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.
  - Instalazio elektroteknikoak eta mekanika, oinarrizko heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.
  - Instalazio elektrikoak eta automatikoak, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.
  - Automatizazioa eta robotika industrialak, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 3 ziklo.
  - Mantentze-lan elektronikoa, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.
  - Sistema elektrotekniko eta automatizatuak, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Telekomunikazio eta informatika-sistemak, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: fabrikazio mekanikoa.
  - Elementu metalikoen fabrikazioa, oinarrizko heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.
  - Mekanizazioa, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 6 ziklo.
  - Soldadura eta galdaragintza, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Fabrikazio mekanikoko diseinua, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 3 ziklo.
  - Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 5 ziklo.
- Lanbide-arloa: ostalaritza eta turismoa.
  - Okintzako eta pastelgintzako jarduerak, oinarrizko heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Sukaldaritza eta gastronomia, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Jatetxe-arloko zerbitzuak, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Sukaldaritza-zuzendaritza, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: irudi pertsonala.
  - Estetika eta edergintza, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

- Ile-apainketa eta kosmetika, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Estetika integrala eta ongizatea, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: elikagaien industriak.
  - Okintza, gozogintza eta konfiteria, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: informatika eta komunikazioak.
  - Informatika eta komunikazioak, oinarrizko heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Mikroinformatika-sistemak eta sareak, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.
  - Sareko informatika-sistemen administrazioa, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.
  - Plataforma anitzeko aplikazioen garapena, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Web aplikazioen garapena, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Informazioaren teknologien inguruneetan zibersegurtasuna, goi-mailako espezializazio-ikastaroa. Edukiera: kurso 1.
- Lanbide-arloa: instalatze- eta mantentze-lanak.
  - Mantentze-lan elektromekanikoa, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 3 ziklo.
  - Mekanika industrial, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 3 ziklo.
  - Lanbide-arriskuen prebentzioa, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: kimika.
  - Laborategiko eragiketak, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Analisisiko eta kalitate-kontrolako laborategia, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Ingurumen-kimika, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: osasungintza.
  - Erizaintzako zaintza osagarriak, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: 3 ziklo.
  - Laborategi kliniko eta biomedikoa, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Ortopotesiak eta laguntza-produktuak, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: segurtasuna eta ingurumena.
  - Ingurumen-hezkuntza eta -kontrola, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
- Lanbide-arloa: gizarte- eta kultura-zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak.
  - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Animazio soziokulturala eta turistikoa, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Gizarteratzea, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Genero-berdintasuna sustatzea, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

- Lanbide-arloa: garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak.
  - Ibilgailu automobilen elektromekanika, erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
  - Automozioa, goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

2. artikulua.— Ikastetxeak indarrean dagoen araudia bete beharko du, agindu honen bidez baimentzen zaizkion heziketa-zikloak irakasteko eskatzen diren ikaspostuen kopuruari, ekipamenduari eta irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.— Ikastetxeak Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

4. artikulua.— Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa. Datu pertsonalak tratatu eta «Lanbide-heziketako ikastetxe pribatuen baimenak» izeneko tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea: Lanbide Heziketako ikastetxe pribatuen erregistro ofiziala. Ikastetxeen irekiera- eta ixte-baimenak, baita emandako baimenetan aldaketak ere.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko.
- 4/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa.
- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea Arautzekoa.

Hartzaileak:

- Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/133300-cap2-eu.shtml>

Araudia:

- Datuak Babesteko Araudi Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=es>).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([https://www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)).

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez dauka bere baitan, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartezko laguntzak lortzea.

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA**

Agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Hezkuntza sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 14a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.